




TXIRRITXOLA

16. ZENBAKIA 1996.EKO MARTXOA. BAKIOKO EUSKERA BATZORDEA

SAN JOSE JAIK BAKION



• SARRERA: Berriro ere San Jose jaiak urreratu zaizkigu. jai honek, askorentzat, oroipen ahanztezinak dakartza:

Udaberria ateetan eta berarekin lehen herri jaiak.

Udatiarren usaina ere nabaria.

Familia giro batean bizi izandako jaiak, hemengo eta hango senitartekoak mahai baten inguruan bilduz, konbidatuak hain zuzen, eta amaieran beti ere, "hurrengo urterarte".

Gaur egun, beste jai askoren bezala, San Jose jaiak beste era batera antolatuak ditugu eta gure buruhausteak asko dira:

-Zer geratzen da jai haietatik?

-Herrikoiak dira oraingoak?

-Gazteek hartzen dute parterik?

-Adineko jendearenak dira soilik?

Guzti honetaz hitz egiteko JESUS OLAZAR BENGURIA-rengana hurbildu gara. Beronek urte asko daramatza jai hauen antolatzailerik gisa eta beraren eta beste batzuen ekipenari esker, gaur egun probaleku bat ere badugu.

Bigarren abizena bezala, JESUS, BENGURI BASERRIKOA da, gizon heldu eta kementsua. GAUBEKA kirol-taldearen partaidea.



JESUS OLAZAR
BENGURIA

SAN JOSE JAIAK**JESUS OLAZAR BENGURIAREKIN hizketan**

GALDERA.- Jesus, zelan laburbilduko zenituzke lehenago eta oraingo San Joseak?

ERANTZUNA.- "Lehenago S. Joseak alegriauak zirela, ze lehenago idi pareak etxe guztietan egoten ziren edo gehienetan. Euren eguna S. Jose izaten zan: plazaratu idi pareak, nork gehiago egin, sari txiki batzuz trukez; lehenengo saria 750 pezeta izaten zan.

Hurrengo egunean San Josetxu egiten zan, harri txikerregaz, 500 pezeta izaten zan lehenengo saria (orain 30.000 hogereko inguru).

Lehen, etxe beharretarako izaten ziren idi pareak, eta beharreen preperaten ziren. Orduan, askoz pozago joaten ziren probalariak. Gaur, idi pareak, plazaratuteko bakarrik preperetan da. Idi pareak dagoz 3.000.000-ginoko kostetan direnak eta euren jugoa eta izerdia atera behar jakie, halan ta guzti frakaso ederrak izaten dira. Jokatu ere asko jokatuten da, badagoz, igual, idi pare bategaz 60.000 hogereko jokatuten dabenak. Honeek ez dira joaten idiak ikustera, jokatutera baino. Niri neuri, gehiago gustetan jat idi proba on bat ikustea."

G.- Lehenago, bertoko jendea bakarrik ala alboko herrietakoak ere etortzen ziren?

E.- "Alboko herrietatik be etortzen ziran, Mañutik, esatebaterako Bitor Txarale, Galo eta Helio... Busturitxik bere bai, baina bertokoak izaten ziren gehienak: Patxo Zabale, Parda, Gaubekakoak, Katxonekoak, Begurienekoak, Lorrekoak... Honeek danak etorten ziren eta politxe izaten zan, eguerdian pare bat edo bi eta arrastian bukatu."

G.- Gazteek zergatik ez dute bereganatzen jai hau?

E.- "Hori, deporte hori, ez dala deporte esaten dabe eta nik ez dakit (...) Nik beste edozein deporteren moduan ikusten dot.

Maltrate egiten direla animaliak eta... horretan be badabilitez, baina... Gaur egun hori kontrolatute dago. Maltrate, piztiak ezin leikez egin, erain apur bat, bai.

Maltreu ezker, lehenengo karreteruari atentzioa deitzen jako eta hurrengoan espulsioa dago eta idi pare bategaz geratzen da idi pareak."

G.- Baserrirako loturarik ez dagoela ere, ezin daiteke izan?

E.- "Bai, gazteek ez daukate loturarik baserrira. Gaur egunean, ikusten dabe beseritik ez dagoela etorkizunik, beste edozein jornal edo beste behar bat askoz hobeto dala. Hortik aparte, deporte horri ez dautsie atentziorik, baina nik ikusten dot Bakion bertan emoten deusiela gixien, ze beste leku batzutan, esatebaterako Urduliz partetik, gazte pilo dago, ia baserri gehienetan. Etxe askotan idi pare bat, mando bat edo behor bat dago eta, lanetik datozenean, entrenetan ibiltzen dira eta afizio itzelagaz urtetan dira plazara, nork gehiagokan. Hemen, Bakion inork ez dau gure, egon be ez dago holako ganadurik."

G.- Mota honetako jaiak, merezi dute zuen asmo, denbora eta esfortzua? Zer dala eta?

E.- "Bai, nik pentsaten dot baietz. Hor, dirurik ez da irabazten, ez horixe. Nik daroadazan 17 edo 18 urteetan ez dot ezer eroan, ekarri gehiago egin dot. Baina afizioa daukagu eta afaritxuren bat edo beste egiten dogu lan egin dabenakaz eta hori gustora egiten dogu. Probakaz jarraitu behar dala uste dot, ze urte baten nafarreia dala eta suspenditu egin zirten eta jenteak San Joseak galdu direla pentsatu zeuen. Nahiz eta harrijasotzailak ipini ez eutsien grazi askorik egin. San Joseak beti izan dira probakaz."

G.- Nola ikusten dozu egun hori beste era batera berreskuratzea Bakiorako, adibidez Abadiñoako San Blasen antzerak?

E.- "Hori ondo egongo litzake, ferri

baten itxurera, hortikultura edo beste gauzaren bat... txakoliñena esatebaterako, gazteria eta herri guztia hara batu eta denetarikoa ikusi dagien.

Ni, Abadiñoan egonda nau eta ederto egon zan, bai feria eta bai probak. Hemen be aukera ederra dago horrelako bat egiteko. Probak egin arren berdin berdin egin leike. Ezer be ezta kostetan dagoen ekipoa-gaz, Udaletxea, gazteria eta nahi dabenak batu eta danan artean organizau. Gauza polita da hori. Herri guztia etorri eta politxo armeko leitekez San Joseak."

G.- Eta gazteentzat zeozer?

E.- "Gazteentzat be gauean ipini leiteke zeozer, ze gauerako probak amaitute dagoz. Aurten berandutxu eginda horretarako baina datorren urterako pentsa leike. Lehenengo urtean ez liteke jende askotzarik egongo baina apurke apurke bai. San Joseak antzinetik dakarre ospea Bakion eta holako jai bategaz gehiago eukiko leukie. Probantzako be mesedea izango leiteke."

G.- Aurtengo eta hurrengo San Joseetarako zer eskatuko zenioke jendeari?

E.- "Datozela, plazaratu daitezela, ikusten idi proba onak eta ia datorren urterako esan dogune kompletetan bada. Beste deporte bat dala, beste baten modukoa, Euskal Herrian zaharretarikoa, zeinek gehiagoka hasikoa."

Nik, ikusi dot idi pare bat behi parean kontra, alboko baserrieta-koak, eta hasarratute joan etxera idiek irabazi zebelako. Egund bigarre- nean haserre ahaztuta edo ez, batek dakil jatorri politxe euki dabe probek.

Jesusek emondako beste datu batzu:

- Bizkaian eta Gipuzkoan dagoz hedatuta probak, Araban gitxi eta Nafarroan bapez.
- Diru gehiago gastatzen da Gipuzkoan Bizkaian baino.
- Idi probak, asto probak eta zaldi probak dira ugarienak, gizon probak amaitzen doaz.
- Asto probak ospetsuak dira Mendatan eta Jurretan.
- Zaldi probak ospetsuak dira Berrizen, Ispasterren eta Munitibarren.

Jesus, jarrai dezazula horrelakoxe gogoarekin eta zure ahaleginak eta beste askorenak batuta herriko ekintzak indartu daitezela.





BAKIOKO ESKOLA ZUGAZTIETAN (LA ARBOLEDA)

Oraingo honetan, eskolatik, Zugaztieta inguruetara abiatu gara. Auzo hau Trapagaranen dago, Bizkaiko herri batean. Mendi tontor batean kokaturik dago, "La Reineta" ondoan. 500 biztanlekoa da gutxi oira behera. Plinio erromatarak aipatu zuen bere garaian burdinezko mendi hau. Erdi aroan, hemengo burdina lantzeko, burdin olak ugaritu ziren Oiola

ibaia barrena. Harrezkero inguruko baserritarrek talde txikitik ateratzen zuten burdina, ondoren idi bustarriekin garraiatzeko burdin oletara.

XIX. mendean bigarren gerla karlista bukatu ondoren, hustirapen exhaustiboa hasi zen, orain dela hogei urte gutxi gora behera. Ateratzen zen burdina, oso famatua zen Europa osoan eta Ingalaterrara %50a esportatzen zen. Shakespearek izendatu zuen bere antzerkietan hemengo burdinez egindako ezpatak Bilbo izenarekin.

Langile asko ibiltzen ziren mehategi hauetan, 10.000 edo 11.000 inguru. Langile hauek lan mota desberdinetan zeuden saiklatuta. Kapataza: aginduak ematen zizkien langileei. Barrenatzaileak: zuloak egiten zituzten burdinezko makil batzuen bitartez, bere indarrarekin baliatuz. Zulo haietan esploziboak jartzen zituzten. Langileak: piku eta palarekin saiitzen ziren, burdina ateratzen zuten eta bagoietara sartu. Pintxeak: langileen beharrianak betetzen zituzten; 8 edo 10 urteetatik hasten ziren lanean. Emakumeak: burdina garbitzen zuten.

Langile hauetatik gehien irabazten zutenak kapatazak eta barrenatzaileak ziran. Kapataza ugazaba zelako eta barrenatzaileak, esploziboak ipintzerakoan, bere bizia arriskuan jartzen zutelako.

Lehen esan bezala, burdina Ingalaterrara esportatzen zen. Ingalaterrara itsasuntziz eramaten zuten burdina, baina itsasuntzietara eramateko, mehategietatik portura eraman behar zuten lehenik. Bidai hau egiteko funikular bat egin zuten 10 minututan jaisten zena.

Lurzoruan burdina bukatu zenenan, lurrazpian jarraitu zuten bere lana eta hau amaitu ondoren itxi egin zituzten mehategiak.

Gaur egun fosilak aurki ditzakegu bertako harri eta harkaitzetan. Orain dela denbora askokoak dira eta guzti honek bere arrazoiak ditu. Euskal herria oraindik ez zegoenean eta bere ordeztasun zabalak zeudenean, moluskoak, lapak... arroketan itsatzita gelditzen ziren. Gaur egun La Arboleda ondoan dauden "Las Cármenes" edo "El Ostión" eta "Parkotxa" deituriko ur putzuetan izen berbera zuten mehategi hustirakuntzak kokatzen ziren.

Orain errekonstruzio fase batean dago, baina zikinkeria da nagusi bere inguruetan; gure esku dago garbi mantentzea.



HERRIKO TALDEEN BERRIAK

ITXAS-ALDEREN BARRIAK

Aurtongo ekintzarik garrantzitsuenen barri emotea gatortzuez.

Urteko alkar-trukaketea Istanbulera (Turkian) talde batez egingo dogu. Eurak garagarrian etorriko jakuz eta gu datorren urtean bertara joango gaitxakez.

Orain dala lau urte bertan izandako Errusiako taldea barriro izango dogu Bakion gure artean, garagarriaren azkeneko egunetan izan be.



Beste aldetik, jorrailaren hamabitiak hamabostera bitartean Istanbulera joango gara, dantzetan baina. Berau, eratuta dogun alkar-trukaketaren gain, hain zuzen be. Eta dagonilaren azkeneko egunetan Italiara, baita dantzetan be, joateko ametsa dogu.

Hartuemonok lortuteko, ITXAS-ALDE nazioarteko folklore arloko erakunde garrantzitsu bitan sartuta dago, arean da:

- 1994.eko urtarrilatik IPH erakunde (Internationaler Partnerschaftsring Hartberg). Berau Austrian dago egon eta Europako folklo-re taldeen nazioarteko alkargoa dogu.
- 1995.eko dagonilatik IOVN erakunde (Internationaler Organisation für Volkskunst). Berau be Austrian dago, herri-ertirako nazioarteko erakunde dau izenaren itzulpena eta mundu mailakoa da. UNESCO delakoaren barruko erakunde da izan.

Amaituteko, ume, gazte zein nagusi: *"dantza egiten ikasi gura badozu, jo eizu gure artean! Ondo esango deusugu eta!"*.

AGUR!

ITXAS -ALDE
EUSKAL KULTUR TALDEA

BAKIO'KO ABESBATZA

Kantu-kantari gabiltza alde batetik bestera gure kantuar herri batetik bestera edota leku ezberdinetara zabaltzeko helburuarekin. Beste gauza batzuen artean aurten Orduñara, Basaurira eta nola ez Versailles-era joateko posibilitatea ere badugu, hau ziurra ez bada ere. Bakioko Abesbatzak aurten beste batzuetan legez Udaberriko Kontzertuetan parte hartzeko asmoa du horrela kultura aberaztu eta gordetzeko. Berriki Begoñako Aste Koralean egon ginen bertan gure ahotsaren ohiartzuna lagaz.

Urte oso lanpetua badugu ere gauzak diren-direnean eta ahalik eta hoberen irtetzea espero dugu.

Esan ere norbaitek gure taldera sartu nahi baldin badu etortzea besterik ez duela, fure taldea guztiontzat eginga baitago eta guztiok baitauegu Abesbatzan sartzeko aukera. Beraz, etor zaitezte gurekin batera zeren badakizue:

«GOGOA DEN TOKIAN, ALDAPARIK EZ»

BAKIO'KO ABESBATZA



Ume txikien berbakerea esaten dogunean, eurok darabilezan berbak dira ala umetxuenganako nagusiek darabilezanak? Biak dira izan.

TXIRI-TXIRI,
OINE-OINE.
AMA LEGEZ,
AMAMA LEGE,
AITITA LEGEZ.
TXIRI-TXIRI,
OINE-OINE.

(oinez ibilten ikasten dagoan umetxuari lagunduteko abestixua dogu hau)



Bakioko euskerea galduten doan ginoan, erderea sartu ta sartuten jaku, geroago eta sakonago sartu be. Erdeldunduten joaku, bada, bizitzea Bakion. Galtze honegaz batera ehundaka esakera berba eta adierazpide joakuz betiko. Hau berau, batez be, ume jaiobarri eta ume txikien munduan jazoten da, mundu honen berbakera berezia ia galduta dogula.

2- Gehigarria. EUSKERA ZORAGARRIA - UME TXIKIEN BERBAKEREA.

Umetxua bera etxeoengandiko hartuemonetan eta, batez be, amaren eskutik sartuten da berbaldunen munduan. Behingo baten hasiko da umetxua beste doinu eta zaraten artean amaren agotsa ezagututen. Lehenengo ta behin, berbak eurak baino, beroneen doinuak ezagutuko dauz. Horregaitik, umezaroan umetxuokaz erabilten doguzan berbek eta berba antzeko zaratek garrantzi haundia dauke. Berbetan hasi baino lehen, doinuak egiten dabez umetxuek. Beluago, berba antzeko doinuak egitera helduten dira, nagusiek eurek erabilten dabezan berben antzeko berbak egiten ahaleginduko dirala. Nagusiek darabilezan esangura bardinak bilatu guran, aurki. Esaterako:

TA-TA 1.- aita.
2.- tas-tas.

Esangura ezbardin bi, beraz.

Holan bada, umetxua nagusiarenak esaten ahaleginduko da eta honek berba barriak edota zarata barriak asmatutea eta ikastea dakar. Izan be, ume txikiek erabilten dabezan lehenengo berbak nagusiengandik ikasten dabez beti eta. Umeak zer ikusi, ha ikasi. Denporearen joanean, berba honeen arteko asko ta asko nagusien berbakerako egin dira.

Umea txikerra dan artean, esaldiak egiterakoan behintzat, hirugarren pertsonen bidez baino ez jako egiten berba, esaterako: “zer ekarri deutso aitak seineri?”; “nori egin deutso barre seinek?”... Gehienetan, aditzak ez dira jokaturen.

Orain hogeit urterik lehenagora guztiz ohidalakoa zan ume txikien berbakune hau. Bizi-bizirik egoan gure etxeetan eta seintxuek lehenengo oinkadekaz batera ikasten eben. Gaur egun, Bakion erabilera hau, arean baino baztertuagoa, hil beharrean dago, zoritxarrez. Baina ez hori bakarrik, erdereak bereak sartutea lortu izan dau. Nork ez dauz herri honetan, bada, oraingo ama askoren ezpanetan honelangorik entzun: Kariñiito!, Tesooro!..., seinetxue!, laztanaa! edo pitxiin! honeen ordez? Eskolara artekoan, etxean ikasiko dau umetxuak berba egiten. Aurrean aitatutako berbake-
ra hori etxean bakarrik ikasi leiteke eta. Horregaitik, gaur eguneko ume txikiokaz euskeraz egitea garrantzi haundi-haundikoa bada be, umezaroan ume-berbakune dalako hori erabilteak geroko umeen euskerea sendotutea dakar.

Orduan bada, umetxuekaz berba edo berba antzeko horreek erabilten ikasi daigun. Honetarako ondoan **BERBALAPIKO** laburra dakartsuegu. Ziur gagoz berbotatik asko be asko eza-
gunak izango dozuezana eta batzuk, behar bada, ahaztuta. Ikasi eta erabili eizuez, bada!
JAGOIZUE BAKIOKO EUSKERA EDERRA!!

TXALO PIN TXALO,
TXALO PIN TXALO,
KATUTXUA MIZPIRA
GANEAN DAGO.
BADAGO BEGO,
BEGO BADAGO,
KATUTXUA MIZPIRA
GANEAN DAGO,
BEGIRA DAGO.

(ume txikitxuei txaloak egiten irakasteko erabilten dan abestitxua)

BERBALAPIKOA (umetxuena)

ABABAU= txakurra / txakurrak egiten dauan zaratea. **(AU-AU)**

ABO-ABO= loak hartuteko umetxuari esaten jakona.

ADUR-DARIO= adurtia, ezpan ingurua beti adurrez bustita dauan umetxuari esaten jako.
(bardin: **MOKO-DARIO, KAKA-DARIO...**)

AIAIA= kalea.

AIAIAN (joan)= kalera joan / ibilten joateko esaten jako.

AIDA-AIDA= idia, behia, zekorria eta.

AINGERUTXU= laztana, seina, maitasuna adierazoteko.

ALALA= ondotxu, nahiko ondo.

ANDI-ANDI (joan, egin)= etxetik kalera ibilten joateko orduan.

AP!= hotz-hotz dagoan zeozer ukutukeran / norbera bustikeran.

APA= abereren baten edo nonoren altzoaren ganera igoan edota besoan artean hartukeran esaten jako.

APAPA= kalea.

APAPAN (egin)= ibilten joateko esaten jako umetxuari / umetxuak hanka egin dauanean esaten jako.
(ATATAN)

APATXE (egin)= jesarri / jesarterakoan esaten jakona.

ARGIZARIZKO= azal leun eta zuri-larrosa dauan umetxuari esaten jako.

ARRETXIKOTAN= umetxua lepo ganean eroateari esaten jako.

ARROTZA-GORRINGO= kontu haundiz jagoñ beharreko umetxuari esaten jako.

ARROTZA-JANGO= arrautza jalea danari esaten jako. (bardin: **FRUTA-JANGO, OGI-JANGO...**)

ASTOKO= astokiloa, burugogorra, astokeriak eginkeran esaten jako.

AUPA!= umetxua jesarrita edo etzunda dagoan tokitik goratukeran esaten jako. **(APA!)**

BABITU= garbitu.

BAPO= ederra, galanta / umetxuak jaten amaituten dauanean esaten jako.

BARRABAN= bihurria, okerra, gaiztoa.

BEGIZURI= begi urdin argiak dauazan umetxuari esaten jako.

(bardin: **BEGIBALTZ, BEGIEDER, BEGIANDI,...**)

BEKEREKA= ardia, bildotsa, arkumea, artxoa eta. **(BEKEKE)**

BILI-BILI= ahatea.

BILIN-BOLA= txirrinbueltea, bilinbueltea, itzulipurdia.

BILIN-BOLAKA= bilinbuelbaka, txirrinbuelbaka, itzulipurdika.

BIORRI= bihurria, okerra, gaiztoa.

BIS-BIS= katua / katuari deituteko egiten dan zaratea.

DILIN-DALAN= kanpaia / kanpaiaren zaratea.

DIN-DAN= danbaladaka, zabuka, bilinbalan / txiboan ibiltea.

DINGILIN-DANGALAN= mogimendu haundiz ibilkeran / herrenka dabilen umetxua / burdiaren trangeladak.

DROGOSO= bihurria, okerra, gaiztoa.

EIÑ= egin.

ERDU!= etorri haitel, hator!

ET= ez / kontuz! esateko.

ETETET= ez,ez, / kontuz, kontuz! esateko.

FIRI-FIRI= gatzu apurka-apurka ete gitxi-gitxika botakeran esaten da.

FU= sua / eguzkia gorri-gorri dagoanean esaten jako umetxuari.

FU (egin)= putz egin (suren bat amatateko).

GAUTXORI= gauez itzartuta egoten dan umetxuari esaten jako.

GIZONTXU= beste mutil txikitxu bat umetxuari erakusteko esaten jako.

IÑUZENTE= kokoloa, ganorabakoa, umetxuari gozoro halan esateko.

IZTERKULUKA= umetxua nagusi baten oin baten ganean jesarrita, izterrak zabalik daukazala, bilinbalanka dabilenean.

JAKAN= jan txarrekoa dan umetxua edo gitxi jaten dauana.

4- Gehigarria. EUSKERA ZORAGARRIA - UME TXIKIEN BERBAKEREA.

KAKA= gorotza, satsa, lohikeria guztiak, berak ukutu ez daiazan esaten jako umetxuari. (**KAKELA**)

KAKELO= saskela, saskeldoa, lohia umetxuari esateko.

KAUSK (egin)= haginka egin, kosk egin.

KIKI= umetxuari bekoki ganean uleez egiten jakon kiribiloa / hagina.

KIKI (egin)= ostuka ibili / ostuka ibilkeran esaten jako.

KIKIL= zakila. (**KIKILIÑO**)

KILI-KILI (egin)= kili-kili egiten jakonean esaten da.

KILI-KOLO= kilin-kolon, askatuta, loka, zeozer loka dagoanean.

KISK-KISK (egin)= ulea moztu edo ebagi.

KISKI-KASKA= umetxua jokeran esaten jakona. (**KISKA-KASKA**)

KOIEGAZA= mainatsu, maina handiak dauazan umetxuari esaten jako.

KOKO= mamarro txikia / txokolatea / arrautzea / umetxua ikaratu egiten dauan gizonkia.

KOKOLO= ganorabakoa, inuzentea, umetxuari goxo-goxo esaten jako.

KOKLOBATXI= kokolotxua, kokolo esatea baino samurrago esaten jako. (**KOKOLOMENDI**)

KOKOMARRO= mamua, ume txikiak ikaratuteko aitauten jaken gizonkia.

KOSKON (egin)= umetxuari kokoteko txikiak buruan emon.

KOXKOR= txikitxua, heldua ez dana.

KUKU (egin)= umetxua ostenduta dagoan lekutik zeozereri begiratu deion edo begiratuten deitsonean esaten jako.

KUKUBARRE= umetxuak edonori barre egiten deitsonean edo egin behar deitsonean esaten jako.

KUKUKA (egin)= burua lantzean behin ataraz kuku egiten dauanean esaten jako.

KUKULUMIO= makurtuta, kokoriko, orpoen ganean jesarrita dagoanean.

KUKURUKU= oilarra / oilarrak egiten dauan zaratea.

KURRA-KURRA= oiloa / oiloari deituteko berbea.

KUTTUN= laztana, seina, aingerutxua, umetxuari maitasuna adierazoteko berbea.

LAU-TXAKURREN= umetxuak eskuak eta oinak behearen ganean dauazala ibilkeran esaten jako. (**LAU-TXAKUR**)

LAZTAN= seina, aingerutxua, umetxuari gozoro esaten jako.

LO KUKUAK= lotaldi laburrak egiten dauazanean.

LOLO= loa.

LOLO (egin)= lo egin.

LOLOTAN (egon)= lo egiten egotea.

LOTI= lo asko egiten dauan umetxua. (bardin: **NEGARTI, TXISETI, KAKATI, ADURTI, MAÑATI...**)

MA (egin)= musua emon.

MAMA= ura, esnea edota edozein edari.

MAMALABATXI= mamalatxua, neskei gozoro esaten jakena

MAMATXALATXU= umetxuari mamala esateko (neskatilei).

MAMELO= gozokia, karameloa.

MAÑAK (egin, euki)= negar egin.

MAÑU= mamua, umea ikaratuteko erabilten dan gizon antzekoa

MASUSTATXU= kokolotxua, neskatilei gozoro esaten jake.

MAU= jan / agokada edo koputxuren bat jan daian agoan sartukeran esaten jako.

MIRRI= argala, txikerra, makala / jan txarrekoa.

MITXIN= katua.

MIXOR= pirria, beterrea, erretxinea, eroan txarreko edo alditxarreko umetxuari esaten jako.

MIX-MIX= katua / katuari deituteko erabilten dan zaratea.

MIZKIN= jateko orduan, mizkeriak otordua bera baino gurago dauazan umetxuari esaten jako.

MOSOLO= baketsua, barea, otzana / matrailgorridun dan umetxua.

MUSU-GORRI= matrailgorridun dan umetxuari esaten jako.

MUSU-MERKE= edonori musuak emoteko beti gertu dagoan umetxuari esaten jako.

MUXE (hartu)= hasarratu / bekoki iluna egin edo jarri.

NANAN (egin)= jan.

NENE= esnea.

NONO= behia.

OGI BEDEINKATU= ona, baketsua, arazorik emoten ez dauan umetxua.

OGI KUXKURTXU= txikia, biguna, goxoa, umeari esaten jakona.

OGI ZATI= ona baino hobe eta umeari esaten jako.

OKER= bihurria, barrabana, gaiztoa.

OLLANDATXU= nagusien antza eta ibilkerak dauazan neskatilea.

PA= musua.

PA (emon, egin, bota)= musua emon, musua bota.

PAPA= ogia.

PAPATA= oinetakoa.

PAPAU= zeozere burua edo begiak estalduten jakozala, umetxua bildurtuteko erabilten dan berbea / ikaratuteko keinuak egiten jakozanean / mamua / umetxuari kokolo esateko.

PAPAUTEN= ilunetan.

PAPURRAK= ogi-zopak jaterakoan ago inguruan geldituten diran hondakinak.

PARRA-PARRA= euria bota ahalean eginkeran.

PATA-PATA= oinez ibiltan dala esaten jako umetxuari.

PATXALASA= neskatilei gozoro esaten jakena. **(PLATUSA)**

PEPELO= kokoloa, memeloa. **(PEPELERDO)**

PERIKO= txiz-ontzia.

PIPI= txoria / zorri-bartza.

PIRRI= beterrea, erretxinea, mixiorra, eroan txarreko edo alditxarreko umetxuari esaten jako.

PISPOTA= neskatilei gozoro esaten jakena.

PITI-PATA= oinez ibilkeran esaten dana.

PITXI= olgetako balio dauan edozein txikikeria, jostailua / gauza polita ta erakargarriari buruz berba eginkeran esaten da.

PITXILIN= zakila.

PITXIN= laztana, kutuna, aingerutxua, goxoro esaten jakonean / txikitxua.

PITXITXI= txakurra. **(PITXITXU)**

PLAUSTA= zeozere behearen ganera jausikeran esaten da, umetxua bera be izan leiteke.

PLISTI-PLASTA= uretan, basatan...gogotsu ibilkeran egiten dan zaratea / ur azalean eskuaz jokeran egiten dana.

POPOLO= lodikotea, potoloa.

POPOT= autoa.

POTIN-POTINTXU= potoloa / hanka okerdunaren ibilkerea.

POTOLO= popoloa, lodikotea, loditua.

POTONGO= ur putzu txikitxua, euriak eragindakoa gehienetan.

POTXINGO= ur putzu txikitxua, euriak eragindakoa gehien baten.

POTXOLO= gozoa, samurra / polita / laztana, aingerutxua, kutuna.

POTXON= umetxuari gozoro esaten jakona.

PUN (egin)= jausi / jausikeran egiten dan zaratea / jausia.

PUNBA= jausia. **(PAUNBA)**

PUNBA (egin)= behearen ganera jausi.

PUNBALA= zeozere edo nonor jausi dala esateko, umetxua bera be tartean / jausia.

PUPU= mina / zauria / urruturea.

PUPU (egin, euki)= min egin edo euki / urrutu / min hartu.

PURRA= oiloa.

PURRUT= uzkerra.

PURRUT (egin)= uzkerra bota.

RAPA-RAPA= arin-arin joatean edo ibiltan esaten da.

SAPA-SAPA= arin-arin joatean edo ibiltan esaten da.

SAPARRO= umetxua bera / beste umetxu txiker bat.

SASKEL= lohia, saskeldoa, zikina.

SASKELDO= lohia, zikina, saskela esatea baino samurragoa.

6- Gehigarria. EUSKERA ZORAGARRIA - UME TXIKIEN BERBAKEREA.

SASKILI-BASKILI= jankeran gauzak aurrerik hara edo goitik behera botaten diranean esaten da / gauzak laskitukeran esaten da.

SEÑE= ume txikia / laztana, aingerutxua umetxuari esateko.

TAKA-TAKA= oinez ibilteko edo ibilten dala, esaten jako umeari.

TALAN-TALAN= kanpaia / kanpaiaren zaratea.

TALE (egin)= jo.

TAPA-TAPA= oinez ibilteko edo ibilten dala, esaten jako umeari.

TAS-TAS= nonor jokeran esaten da / umetxuak eskuak zabalik daukazala joteko keinuak egitea.

TAS-TAS (egin, emon, hartu)= jo, zigortu, eperdikoa emon edo hartu.

TATAN (egin)= laztan egin.

TATANTXU (egin)= laztan egin.

TATI (egin)= umetxuari gauzaren bat eskeini eta hartuten doanean kendu, olgeta lez.

TATO= jauzia, saltoa.

TATO (egin)= jauzi egin / jantziak janzkeran umetxuari besoak eta hankak zuloetatik sartuten lagunduteko esaten jako / jatsi.

TERRALA (hatu)= umetxuak negarraldi zaratatsua egiten dauanean.

TETE (egin)= jo.

TIKI-TAKA= oinez ibilteko edo ibiltean esaten jako umetxuari.

TIPI-TAPA= oinez ibilteko edo ibiltean esaten jako umetxuari.

TIRRIN= txirrina / zila, zilbor hestea ebagikeran lotuten dan zuloetara / umetxu negarti eta gogaikarriari esaten jako.

TIRRIN-TARRAN= dandarrez, narraz ibilkeran.

TITI= bularra / titia hartutea.

TOTO= txakurra / seina, umegorria.

TOTONOXO= txakurkumea.

TRAKATAN-TRAKATAN= belaun ganean umea jauzika dagoala, zaldi ganean balebil lez, esaten da.

TROKOLO= txaparroa, zabalotea.

TUNTURRUNTAINA (hartu)= muxe hartu, hasarratu, bekoki iluna egin.

TURRU-TURRU= ganezka pilotu.

TXAKA-TXAKA= oinez ibilkeran esaten jako / arin-arin ibili.

TXAKALA-TXAKALA= trenaren joana.

TXALO= belarriondokoa, matrailekoa, plastadea.

TXALO-PIN-TXALO= eskuak bata besteaz jokeran egiten dan olgetea / txalo egitea.

TXANBELIN= dotorea, polita, lerdena, gozoro esaten jako neskatileari.

TXANKAME= hanka argalak daukazanari esaten jako.

TXANKA-PISTOLA= hanka argalak daukazanari esaten jako.

TXANKIRRIN= neskatilei gozoro esaten jakena.

TXANTXAN (egin)= dantzan egin (jantzan egin).

TXANTXUR= esne hagina, umearen lehenengoetariko hagina. **(TXATXUR)**

TXAPARRO= umetxua bera / beste edozein ume txiker.

TXAPISKOLA= bizia, okerra, bizkorra, bihurria, neskatilear gozoro esaten jako.

TXARRITO= saskela, saskeldoa, lohia, esaten jako umetxuari.

TXATA= sudurra.

TXATXA= sagarra, madaria edo antzekoa dan bestelako frutea / ozta-ozta oinez egiten dakian umetxuari esaten jako.

TXATXUR= esne hagina, umearen lehenengoetariko hagina.

TXERA= umetxuak laztandukeran egiten dauan igordia, igortaldia.

TXERATSU= txerak, laztanak egitea eta hartutea gogoko dauana.

TXERREN= barrabana, okerra, bihurria.

TXETXE= ume txikia / ispiluan umetxuak bere burua ikusikeran esaten jakona. **(TXETXITO)**

TXI= erre. **(TXIT)**

TXIBISKERIA= jostailu txikiak, ezgauzak / gauza txikerrak.

TXIBO= zugatz baten adarretik dingilizka, danbaladaka ibilteko, eskegiten dan sokea (kolunpioa).

EUSKERA ZORAGARRIA - UME TXIKIEN BERBAKERA. Gehigarria -7

TXIKER= txikia. (**TXIKIÑA**)

TXIKI-TXIKI= txarriari deituteko egiten dan zaratea.

TXIKIÑA= neskatileari gozoro esaten jakona.

TXIKON= lepo ganean umetxua eroankeran, arretxikotan.

TXILBRISTO= mutilei gozoro esaten jake.

TXILIN= txintxarria.

TXILIN-TXALAN= kanpaiek ataraten daben zaratea / umea bilinbalanka aidean erabilkeran esaten da.

TXIN= dirua / txanpona.

TXINTX (egin)= zintz egin, sudur zuloetatik mukia atarateko haizea botakeran indarra egin.

TXIN-TXIN= dirua / txanpona.

TXIN-TXIN-KOSKON= umetxuari olgeta antzean esaten jake behin ta barriz, **TXIN-TXIN** esateaz batera kilikiliak eginez eta **KOSKON** esateaz batera buruan jotearen itxura eginez, kokoteko txikitxuak emoten jakoz. (beste horrenbeste **KISK-KISK KOSK-KOSK** berbea erabiliz)

TXINTXIRRI= umetxua negarretan isildu edo baretu daiten nagusiak eskutan eragiten deutson txintxarri antzekoa / umetxua isildu daiten nagusiak zarata hori agoz egiten dauanean.

TXIO-TXIO= txoria.

TXIO-TXIOKA= txoriak abestuten dagoanean egiten dauan doinua.

TXIPLI-TXAPLA= uretan, ur azala jokeran egiten dan zaratea.

TXIPOTIN= potintxua, potxingo txikia / umetxu txikia, txaparroa.

TXIRINBUELTA= bilinbueltea, bilin-bolea, itzulipurdia.

TXIRIPILLOTA= neskatilatuari esaten jake / neskatilatua.

TXIRRIBORRO= nahaste-borrastea, nahastea / paperearen ganean umetxuak egiten dauan marrazketea.

TXIRRIN= txirrina / zila, zilbor hestea ebagikeran lotuten dan zulotxua.

TXIRRI-TXIRRI= kilkerra, kirkiloa / ur xirripea, ur txirristatua eta bere doinua.

TXIRTXILLERIA= gauza txiki ugariari esaten jake / umeteriea, umesaila, umetxuak batera egoteari esaten jake / huskeriak.

TXIS= garnua, txiza / txiza egiten danean sortuten dan zarateari esaten jake.

TXISTU= zakila. (**PITXILIN**)

TXITAN (egin)= zutundu edo oinez hasten danean mugituteko esaten jake umetxuari.

TXITAN-TXITAN= umetxua zutundukeran eta mugitukeran esaten jake.

TXITXI= okelea, arraina, jatekoa / txakurra.

TXITXIMARKA= hatzamarkeada / min egiteko hatzamarrez haragia bihurtukeran esaten da.

TXITXIRIBITXI= gauza txikiak / txirtxileriea.

TXOLINTXU= polita, alaia, lerdana dan umetxuari esaten jake.

TXONBO= uretan buruz behera murgildukeran esaten da.

TXOR-TXOR= txorien txio-txioa edo doinua / amaibako berbeteari esaten jake, umetxuak lotu barik berba egiten dauanean.

TXORI= neskatileari buruan ipinten jakon troinuari esaten jake.

TXORTA= uleez egindako matazea / txirikordea, hau da, uleak ondo orraztuta eta batuta dagozala ule mordo osotzen dabenean.

TXOTXO= txo / mutiltxuari esaten jakona.

TXOTXOBARIKU= kokoloa, kokolomendia.

TXU=txistua botatean holantxe esaten jake umetxuari

TXURKU-TXURKU= zurrutada txikietan edatea / umetxuak tititik dzangadea hartuten dauanean egiten dauan zaratea.

TXUT!= bero-bero dagoan zeozer ukutukeran / sargoria, aro beroa dagoanean / norbera errekeran esaten dana.

TXUTXU= erakargarria danari esaten jake.

UFA-UFA(ibili)= uretan ibili. (**UFA-UFAKA ibili**)

UMEGORRI= nagusi keinuak egiten dauazan umetxua. (**UMEKONDO, UMEMOKO, UMESOSTOR**)

ZEZENKO= umetxu indartsua, astokilotxua.

ZIZIPOZO= S-aren orde espainerazko Z esaten dauan umetxuari esaten jake.

ZURIKERIA= umetxuak zeozer lortu gura dauanean egiten dauan txotxolokeriea.

8- Gehigarria. EUSKERA ZORAGARRIA - UME TXIKIEN BERBAKEREA.

LOTXU ENGAINADORE,
FALTSO, TRAIIDOREA!
LOTXUK ENGAINAUKO DAU,
BAI, GURE UMEA!

(Arabako Aramaioko umeentzako
lotarako abestia)

Zuk, irakurle, entzungo edota erabiliko zenduzan honeetariko berba asko. Beste asko be egon badagoz gure zaharren ago-minetan. Holako beste berbarik jakingo edo entzungo bazendu, guri esatea bihotzez eskertuko geunskizu. Batu eizuz, bada, eta esan eizuz!

Iniaki MARTIARTU
1996.eko zezeilan

BIBLIOGRAFIA

MARKAIDA E. - Umeen hizkuntza eta lexikoa - AHOZKO LITERATURA, GENERO TXIKIAK / GAUONTZA SORTA - LABAYRU - 1991.

GAMINDE I. - Umeen berbak direla-eta - AHOZKO LITERATURA, GENERO TXIKIAK / GAUONTZA SORTA - LABAYRU - 1991.

GAMINDE I. - Urduliz inguru berbak eta bizimodu - 1992.

GAMINDE I., MARKAIDA E. ta B. - Sopolako euskaraz - URDULIZKO EUSKERA TALDEA -1993.

ARGOITIA, AZKARATE, GEZURAGA - Eibarko euskeraren esakerak eta bestelako berezitasun batzuk - EIBARKO UDALA - 1995.

GAMINDE I., SALTERAIN M. - Abadiñoko lexikoaz - ABADIÑOKO UDALA -1992.

ARRETXE J. - Basauriko euskara - BASAURIKO UDALA - 1994.

PEREZ BILBAO A. - Bermeoko herri hizkera - 1991.

VILLEGAS J. - Nire biotza - LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA - 1978.

LEKUONA M. - Idaz-lan guztiak - 2. LIBURUKIA, EUSKAL ETNOGRAFIA - 1978.

LEKUONA J.M. - Ahozko euskal literatura - EREIN - 1982.

HERRIKO TALDEEN BERRIAK

ITXAS-ALDEREN BARRIAK

Aurtongo ekintzarik garrantzitsuenen barri emotea gatortzuez.

Urteko alkar-trukaketea Istanbulera (Turkian) talde batez egingo dogu. Eurak garagarrian etorriko jakuz eta gu datorren urtean bertara joango gaitxakez.

Orain dala lau urte bertan izandako Errusiako taldea barriro izango dogu Bakion gure artean, garagarriaren azkeneko egunetan izan be.



Beste aldetik, jorrailaren hamabitiak hamabostera bitartean Istanbulera joango gara, dantzetan baina. Berau, eratuta dogun alkar-trukaketaren gain, hain zuzen be. Eta dagonilaren azkeneko egunetan Italiara, baita dantzetan be, joateko ametsa dogu.

Hartuemonok lortuteko, ITXAS-ALDE nazioarteko folklore arloko erakunde garrantzitsu bitan sartuta dago, arean da:

- 1994.eko urtarrilatik IPH erakunde (Internationaler Partnerschaftsring Hartberg). Berau Austrian dago egon eta Europako folklo-re taldeen nazioarteko alkargoa dogu.
- 1995.eko dagonilatik IOVN erakunde (Internationaler Organisation für Volkskunst). Berau be Austrian dago, herri-ertirako nazioarteko erakunde dau izenaren itzulpena eta mundu mailakoa da. UNESCO delakoaren barruko erakunde da izan.

Amaituteko, ume, gazte zein nagusi: *"dantza egiten ikasi gura badozu, jo eizu gure artean! Ondo esango deusugu eta!"*.

AGURI!

**ITXAS -ALDE
EUSKAL KULTUR TALDEA**

BAKIO'KO ABESBATZA

Kantu-kantari gabiltza alde batetik bestera gure kantuar herri batetik bestera edota leku ezberdinetara zabaltzeko helburuarekin. Beste gauza batzuen artean aurten Orduñara, Basaurira eta nola ez Versailles-era joateko posibilitatea ere badugu, hau ziurra ez bada ere. Bakioko Abesbatzak aurten beste batzuetan legez Udaberriko Kontzertuetan parte hartzeko asmoa du horrela kultura aberaztu eta gordetzeko. Berriki Begoñako Aste Koralean egon ginen bertan gure ahotsaren ohiartzuna lagaz.

Urte oso lanpetua badugu ere gauzak diren-direnean eta ahalik eta hoberen irtetzea espero dugu.

Esan ere norbaitek gure taldera sartu nahi baldin badu etorteza besterik ez duela, fure taldea guztiontzat eginga baitago eta guztiok baitauegu Abesbatzan sartzeko aukera. Beraz, etor zaitezte gurekin batera zeren badakizue:

«GOGOA DEN TOKIAN, ALDAPARIK EZ»

BAKIO'KO ABESBATZA



EUSKERA BATZORDEAK ANTOLATUTAKO BERTSO AFARIA

Gipuzkoa aldetik etorri jakuzan
oraingoan bertsolariak. Punta-
puntakoak eurak, artista hutsak.
Hinbeste barre egin genuen,
eurak eta geuk, geure kontura,
hori bai. Giputzok beti ere
bizkaitarroi adarra joaz.



EGAÑA

ALDE HORTATIK ARRAZOI «PIXKAT»
ERE BADUZU LAGUNA.
GAUR BERTSO-LEKU JARRI DIGUTE
HALAKO TOKI TXUKUNA
ETA AURREAN BI «GRABADORA»
HORI ERE EZ DA LEGUNA,
HORRETAN ERE NABARMENTZEN DA
ZUEN BILBOTASUNA.

UDA PARTEAN BANDIDO ASKO,
HORI DA JONEN USTEA.
BAKIORENTZT EZ DA HALAKO,
JOERA LATZ ETA TRISTEA.

(*Une honetan baten batek tragu bat eskeini eutson Ega-
ñari, eta honek, lotu barik, era honetara jarraitu eban:)

ONENA DUZU ZURE BASUARI
AHAL DEN MODUAN EUSTEA
TA GU BERTSOTAN ARI BAGARA
EZ ISTILUTAN HASTEA...

*Hori bai, bota ostean tragoa jaso eban.

SARASUA

ORAIN ARTEAN BEHINTZAT, BERTSOA
NAHIKO ONDO DUTE SEGI.
NOLANAHI ERE HAUEI BEGIRA,
JARRIAK DAUZKAT BI BEGI.
BAKIO HERRI HAU MAPAN EZ AL DA,
XELEBRE XAMAR AGERI?
ONDARRUTIK HAIN URRUTI ETA,
BILBOTIKAN HURBILEGI. (BIS)

EZ DA BATERE IDEIA TXARRA
TURISTEI DIRUA KENDU,
BAKIOTARRAK ENTZUN DUDANEZ
HORTAN LITEZKE MANTENDU,
BAINA ANDONI, NAHIAGO NUKE
KONTUAN HARTUKO BAZENDU,
ZERBITZARIAK AZKENERAKO
UGAZABAN ANTZA HARTZEN DU...

Eta holantxerik, irri eta zirri, ordu batak ondo jo artean, jantokia bete-beterik.
Egia izango ete da bertso-giroak merezi duala?

aek - Jaurlaritza... ...eta AKORDIOA sinatu zen!

Hamasei hilabetez gora ta behera aritu ondoren **aek**-k eta Jaurlaritzak akordio-marko bat sinatu dute. Honetan **aek**-k eskatu ohi dituen puntu gehienak jaso dira, halanola:

- 1.- Jaurlaritzak onartzen du **aek** erakunde legeaz eta baita **aek**-k urtetan egindako lan guztia eta daukan onarpen sozial zabala.
- 2.- Orain arteko irakasleen homologazio baldintzak aldatuko dira. **aek**-k eskatu bezala, esperientzia eta euskaren irakaskuntzan trebatzeko dauden ikasketak hartuko dira kontutan.
Jadanik **aek**-ren irakasle eta euskaltegi guztiak homologazio bidean daudela onartzen da.
- 3.- Dirulaguntzak: arlo honetan **aek**-k itzelezko bazterketa jasan du eta egun ere jasaten du. Diskriminazio honekin bukatzeko konpromezua hartu du Jaurlaritzak, lan honetan diharduten erakunde guztiak kontutan harturik.

Puntu batzuk zehazteke gelditu dira: euskaltegien mapa, diru-laguntzak datozen urteetan,... baina bidea zabaldu da. Ea aprobetxatzeko gauza garen batzuk eta besteok.

VII. IDAZLAN LEHIAKETAREN EMAITZAK BAKIO. 1995

1. Lehen Maila (7-10 urte)

1. saria: Etxotzi ELGEZABAL URIARTE:
«Sisi etalzar Zuri»
2. saria: Idoia ELORRIAGA:
«Emakumearen Destinoa»
3. saria: Lainoa BILBAO MAKATZAGA:
«Izarrak eta Ilargia Olentzero egunean»
- Aipamenak: Oihane LONGARAI ZABALA:
«Txakurra»
- Aurkeztuak: Sei.

2. Bigarren Maila (11-14 urte)

1. saria: Aiora AGIRRE MARTINEZ:
«Musu Beltza»
2. saria: Gotzone URIARTE LOPATEGI:
«Etxera Itzuli»
3. saria: Amets JAUREGIZAR BARAIAZARRA:
«Txoriak, askatasuna bila»
- Aipamenak: Anartz ORMAZA UGALDE:
«Ikurriña, bertsoengatik»
- Aiora AGIRRE MARTINEZ:

«Musu Beltza, lakirioren eta irudiagatik»

Aurkeztuak: Hamaika.

3. Hirugarren Maila (15-18 urte)

1. saria: Saioa URIARTE LOPATEGI:
«Sorgin Denporetakoak»
2. saria: Ainara MADARIAGA GARCÉS:
«Lau-burua, euskararen ama»
- Aipamenak: Itziar GARAI ABAROA:
«Nire Herria bertsoengatik»
- Aurkeztuak: Lau.

4. Laugarren Maila (19 urtez gorakoak)

1. saria: M. Bego ITURAIN BIODASOLO:
«Amorrugabeko Astronauta»
2. saria: Karmele URIARTE BILBAO:
«Txapuren nahitaezko bakardadea»
- Aurkeztuak: Bi.

19995eko abendua
Angel Zelaieta.

LEHEN MAILAKO IPUIN IRABAZLEA «SISI ETA IZAR-ZURI»

Bazen behin Izar-Zuri izeneko itsas izar bat, ez zeukan lagunik eta bakarrik eta triste bizi zen. Egun batean itsas barreneko herri horretara Sisi izeneko itsas-zaldiko bat heldu zen. Sisi haitz batean ezarri zen, eta haitz horren ondoan, beste haitzean, Izar-Zuri bizi zen. Egun batzuk geroago, Sisi, Izar-Zuriren etxera joan zen bizta egitera, eta orduan Izar-Zurik tea hartzera gonbidatu zuen. Hilabete bi pasa ondoren Sisi etorri zenetik, Izar-Zuri eta Sisi hain lagun handiak egin ziren bata bestearengandik aldendu ezinean bizi zirela. Goiz batean Sisi, Izar-Zuriren bila joan zen bere etxera, atea jo zuen eta Izar-Zurik iraki zion eta prest zegoenez biak hortik joan ziren eguna pasatzera. Eguna herriska horretako beste puntan pasatu zuten. Haitz lasai eta bakarti batean, etya eguna igarotzen zihoanez, lo gelditu ziren biak. Hurrengo egunean haitz horretan iratzartu ziren eta erabaki auten haitz horretan ezartzea. Urte bat pasatu ondoren, haitz horretara txirla bat heldu zen Pibapiba deitzen zena. Txirla hau oso gaixo zegoen eta horregatik Izar-Zuri eta Sisi berataz

arduratu ziren. Egun horretan bertan Izar-Zuri eta Sisi sendagile baten bila joan ziren Pibapiba sendatzeko, baina herriko alde horretan ez zegoen sendagilerik eta orduan eurak lehen bizi ziren lekura joan behar izan zuten sendagile bat bilatzera. Sendagilea Legatz doktorea zen. Legatz doktorea Pibapibaren etxera joan zen eta esan zien Izar-Zuri eta Sisiri infekzio bat zeukala eta 2 aste egon beharko zuela geldi-geldi. Aste bi pasatu ondoren Pibapiba sendatuta zegoen eta eskerrak eman eta gero alde egin zuen. Izar-Zuri eta Sisi oso triste zeuden Pibapiba joan zitzaielako, oso lagun onak egin ziren eta. Egunak joan eta egunak etorri etxe komodo-komodo bat egin zuten eurek biak bizitzeko. Etxeak gela bat baino ez zeukan, kontza itzel birekin kontxak euren oheak ziren eta jatera kalera irteten ziren janaria harrapatzeko. Egun batean arrantzale batzuk joan ziren urpeko herriska horretara arrainak harrapatzera, baina herrixka horretan ez zuten ezer harrapatu. Izar-Zuri eta Sisi bizi ziren lekura heldu ziren. Izar-Zuri janaria bila


joana zen eta arrantzaleak harrapatu egin zuten. Sisi etxetik irten zen Izar-Zuri bila asko tardatzen baitzuen eta Izar-Zuri ikusi zuen gorantza zihoala laguntza eskatzen. Orduan Sisik bi aldiz pentsatu gabe, Izar-Zuri askatzera joan zen eta berehala askatu zuen. Horrela etxera itzuli ziren. Hurrengo egunean Izar-Zuri berria izango bazen bezalaxe sentitzen zen. Urte bete igaro zen eta Riha eta Banquipa itsas-izar eta itsas-zaldi bat heldu ziren herriskara eta Izar-Zurik eta Sisik eurak ezagutzera joan ziren herriska erdira. Izar-Zurik eta Sisik ikusi bezain laister Riha eta Banquipa euren etxea ezagutzera gonbidatu zituzten.

Azkenean 2 hilabete igaro zirenean Izar-Zuri eta Riha ezkondu egin ziren, baita ere Sisi eta Banquipa. Ezkontza honetan ez zen gonbidaturik egon, bakarriak eureak laurak, eta egun horretatik aurrera laurak oso zoriontsuak izan ziren elkar-elkarturik bizi baitziren.

Egilea: Etxotzi Elgezabal Uriarte.

LEHIAKETA MUNDIALA ITSASOA (GALDEKETA)

- 1.- Itsasoaren tenperatura ez da beti berdina. Zeren arabera aldatzen da?
- 2.- Itsasoak kliman zerikusirik al du? Zergatik?
- 3.- Zenbat aldetan banatzen dute kontinenteek itsasoa? (ozeanoa).
- 4.- Itsasoak lurrazalaren zenbatekoa estaltzen du?
- 5.- Zein da munduko itsasoen artean sakonera gehien duena?
- 6.- Zein da azalera haundiena duena?
- 7.- Zein izen ematen zaio itsasoaren higaduraren ondorioz sortutako itsasertzeko malkarrari?
- 8.- Baldintzatzen al du Hilargiak (eta Eguzkiak) itsasoa era batera ala bestera? Nolan?
- 9.- Itsas hondoa zerez eratuta dago?
- 10.- Egia al da itsas korronteek barrenetik dakartela ur hotza azalera? Egia bada zer dakar itsas korronteak uretan disolbatuta?



2 zenbaki	4 zenbaki
90	3418
96	1137
84	8310
83	4738
81	2766
19	9213
	1280
3 zenbaki	1841
129	
130	5 zenbaki
139	97881
429	96841
769	02930
634	84370
846	73288
942	21806
	67090
	10403
	47981

H	A	R	A	G	I	A	I	D	N	U	A	H	H
I	A	H	E	Z	U	R	R	A	B	H	H	I	E
L	D	N	S	F	I	E	L	F	E	A	I	R	D
H	O	Z	K	A	K	U	E	G	J	A	L	I	A
H	R	E	B	A	T	R	A	M	Z	U	E	B	T
A	B	T	G	I	R	N	H	T	R	I	R	U	U
R	T	H	K	E	J	P	I	N	P	D	R	R	G
T	A	N	S	O	I	A	G	A	H	O	I	U	J
U	U	A	F	R	K	R	I	I	X	O	A	H	Z
H	H	R	R	R	L	A	T	R	D	H	B	E	L
P	E	A	A	H	U	S	U	O	G	Z	O	I	H
I	H	H	A	S	I	M	T	H	E	R	R	I	A

IRAGARKIZUNA

Zuhaitz batetan, 10 uso eta 20 okil daude. Gizon batek hiru tiro botatzen ditu eta hiru uso hiltzen baditu, zenbat gelditzen dira zuhaitzetan?

izutzen bait dira

ERANTZUNA: Bat erez, denak